

## LANKIDETZARI BURUZKO EUSKAL LEGE BERRIA LANTZEKO PROZESUA

### AURREKARIAK:

2007. urtean garapenerako lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Lege horrek eztabaida sakonak eragiteaz gain, lege-babesa eman zion justiziaren eta garapenaren aldeko euskal elkartasunaren eta lankidetzaren 20 urteko jardunari.

Urte horretako abenduan, legegintzako herri ekimen bidez, Herralde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutuna onartu zuen Eusko Legebiltzarrak (14/2007 Legea, abenduaren 28koa).

14 urte hauetan, euskal administrazioen lankidetzari buruzko politika publikoa definitu eta indartu dute araudi horiek. Euskal lankidetzak 2021ean aurre egin beharreko erronkak zeharo desberdinak dira 2007. urtekoekin alderatuta, eta erronka horietako batzuk zerrendatzen ditugu ondoren: i) nazioarteko paradigma berri bat erronka globalei ekiteko; ii) sistemari eta lankidetzalegeei buruzko gogoeta-prozesua hasi duen lankidetz-ingurune bat (estatua, autonomia-erkidegoak, Europar Batasuna); iii) euskal lankidetz deszentralizatuaren alderdi nagusiak indartzea ahalbidetzen duen 30 urtetik gorako ibilbide bat, hutsuneak identifikatzearekin eta onbidatzearekin batera; iv) erakunde-arloan aplikazio-esparrua zabaltzen duen araudi berri bat egitearen aldeko koiuntura politiko eta erakunde arteko kontestu berri bat.

Erronka horietako batzuei erantzunez, 2020-2024 aldiko gobernu-programak –XII. Legegintzaldia "Euskadi martxan"– 105. konpromisoan ezartzen du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Lege berri bat lantzea eta onartzea. 2021eko urteko arau-planean du isla konpromiso horrek eta Eusko Jaurlaritzak egungo arau-markoa berrikusteko prozesuari hasiera emateko borondatea islatzen du.

### GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL LEGE BERRIA LANTZEKO HELBURUAK:

- 1. Egungo erronka globalekin bat datorren euskal lankidetzari buruzko politika batean aurrera egitea:** klima-krisia; desperekotasunen sakontzea; krisi sanitarioa, migrazioak eta desplazamendu masiboak; genero-justizia, trantsizio digitala, eta abar.
- 2. Euskadiren konpromiso solidarioa gure nortasun-ezaugarrietatik sendotzea:** elkartasun desinteresatuan oinarritutako kalitatezko lankidetz deszentralizatu bat, eta gizarte antolatu eta aktibo bat.
- 3. Giza garapen jasangarriaren aldeko euskal agenteen arteko koherentzia eta erantzun kidetasuna hobetzen dituen arkitektura instituzional berri bat sendotzeko bidean aurrera egitea.**
- 4. Euskadiko baliabide solidarioen mobilizazio-oinarria handitzea:** herritar aktiboak; sektore askotariko eta dinamikoa; onetsitako ibilbidea eta esperientzia duten GKE espezializatu batzuk; inplikaturako gizarte-eragile eta agente instituzional berriak; administrazio konprometitu eta aktibo batzuk.
- 5. Garapen jasangarrirako politiken koherentzia ezaugarri duen eredu baterantz aurrera egitea,** araua euskal administrazioetatik beretatik eta euskal administrazioen beren barrura hedatzea ahalbidetuko duena.